



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 26a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak “erabakitzeko eskubidea” deritzonaren eskakizuna dela-eta arlo orokorrean duen jarrerari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lehentasunezko txertaketa-taldeetan sar ditzan zenbait gaixotasun dauzkaten pertsonak. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Zarrakaztelun osasun etxe berria eraiki dezan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira batera lan egin dezaten Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan “Nafarroako euskalkien aipamena” izenekoak sortzearen alde. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren elkarrizketak eranstera Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioetan, Nafarroak ahalik eta eskumen gehienak eduki ditzan energia-politikaren arloko araugintzan eta zergapetzean. Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan familia guztiak baldintza beretan matrikulatu ahal izatea titulartasun publikoko haur-eskoletan, desberdintasun-egoerak saihestuz. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultza ditzan jabetza pribatua defendatzeko, herritarren bizikidetzeta eta segurtasuna bermatzeko eta etxebizitzak legez kanpo okupatzearen aurka borrokatzeko. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (14. or.).

- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da kirol-jarduera funtsezko jardueratzat hartzera, eta Espainiako Gobernuari eskatzen zaio jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako zerbitzuen balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) jaisteko. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan NA 6900 errepidearen plataforma eta bazterbideak handitzeko, bidearen segurtasuna hobetze aldera. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da “analfabetismo digitala desagerrarazteko prestakuntza-ekintzen eta gaitasun digitalen plan” bat ezar dezan. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Soldata-berdintasunaren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat gaitzetsi eta arbuiazen baitu Azagran izandako indarkeria matxistako ekintza. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, titulu homologaturik ez duten osasun arloko profesional migratzaileak kontratatzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Pfizerren txertoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (22. or.).
- Galdera, goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia “aldi baterako” kentzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, kalitate-figurak sustatzeko Landa Garapenerako Programen 2021eko deialdiari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, langile publikoen prestakuntza eta gaitzuntza teknologikoari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (23. or.).
- Galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostenari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (24. or.).
- Galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Kideak programari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, sare sozialen bitartezko gorroto-diskurtsoak monitorizatu edo kontrolatzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, emakumeak ahalduntzeko, emakumeak aisialdi-begirale gisa prestatzeko eta COVIDi buruzko sentsibilizazio-sare bat ezartzeko programei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, hizkuntzak ikasteko programei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak hautatutako analisi- eta azterlan-arloei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (28. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko (29. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Navarra Suma talde parlamentarioak foru lege proposamen bat aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea (10-21/PRO-00003).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea

HITZAURREA

Jaioberrien baheketarako programek modua ematen dute hemopatiak, immunoeskasiak eta gaixotasun endokrino-metabolikoen diagnostiko goiztiarra egin eta ukituriko pertsonengan tratamendu goiztiarra ezartzeko, halatan modua emanik haurren bizi-kalitatea nabarmen hobetzeko. Kasu askotan, programa horiei esker haur horiek normaltasun osoa lortzen dute. Horrenbestez,

programa horien ezarpena neurri eraginkorra da haur-populazioan desgaitasun fisikoaren eta psikiokoaren intzidentzia eta hilkortasun saihegarria murrizteko, hainbat gaixotasun arraroren bilakera aldatzea lortzen denez gero. Hori dela-eta, mundu osoko herrialde eta erregio askok jaioberrien baheketarako populazio-programak ezarri dituzte, gero eta patologia gehiagoren detekzioa biltzen dutenak.

Proba egiteko, jaioberriaren orpotik odol-tanta bat hartzen da jaio ondotik 48 ordu igaro direnean; horregatik, "orpoko proba" gisa ezagutua da.

Gure herrialdean, Lurraldearteko Kontseiluaren osoko bilkurak 2013an onetsi zuen Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarritzko zorro komunean sartzea jaioberrien baheketarako programa, zazpi patologiarren detekzioa biltzen duena, gehitu egin baitzitzaizkion fibrosi kistikoaren detekzioa, kate ertaineko azil-CoA deshidrogenasaren eskasiarena, kate luzeko 3- hidroxiazil-CoA deshidrogenasaren eskasiarena, I. motako azidemia glutarikoarena eta zelula faltziformeen anemiarena duela 40 urte baino gehiago ezarritako baheketa-programari, zeinak xede baitzuen sortzetiko hipotiroidismoaren eta fenilzetonuriaren detekzio goiztiarra.

Erabaki hori gauzatu zen urriaren 31ko SSI/2065/2014 Aginduan, zeinak aldatu egin baitzituen Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunak zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I, II eta III. eranskinak. Aginduak Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarritzko zorro komuna zehazten eta eguneratzen du; besteak beste, gaixotasun horien baheketa dagokionez, eta ezartzen ditu Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarritzko zorro komuneko den jaioberrien gaixotasun endokrino-metabolikoen baheketa-programan sarturik egon behar duten gutxieneko zazpi gaixotasunak. Programa horrek 2015eko azaroaren 1etik

aurrera behar zuen ezarrita egon nazio-lurralde osoan.

Tandemeko masa-espektrometrian oinarrituriko analisi-teknikak baheketa-laborategietan erabiltzeak, duela hogeita hamar urtetik, aldaketa nabarmenak ekarri ditu pixkanaka, odol-tanta baten analisiaren bitartez posible egiten baitu berrogei eritasun baino gehiago aldi berean bahe-tzea. "Baheketa areagotua" deritzona da.

RUSP (Recommended Uniform Screening Panel) of Secretary of the Department of Health and Human Services (HHS) delakoak gomendioak egin ditu ebidentzia zientifikoaren mailan oinarriturik jaso daitezkeen patologiak jaioberrien baheketan, gomendio horietan sarturik oinarritzko 35 eritasunen eta bigarren mailako 26ren baheketa.

Baheketa areagotuaren alde metatu den ebidentziak eragin du Mendebaldeko Europako herrialde ia guztietan eritasun-kopuru handi bat jaso izana nor bere jaioberrien baheketarako programan. Bereziki nabarmentzen dira Herbehereak eta eskandinaviar herrialdeak.

Beste urrats bat Italiak egin zuen 2016an, lege onetsirik jaioberrien baheketa programa homogeneousatu eta berrogei eritasunetaraino areagotu baitzuen, herrialdean jaiotako haur guztien eskubide gisa arauturik.

Espanian, nahiz eta gutxieneko zorroak zazpi eritasunetarako baheketa baizik ezartzen ez duen, jaioberrien baheketarako programek aldakortasun handia erakusten dute autonomia erkidegotik autonomia erkidegora.

Autonomia erkidego guztiek jasotzen dute beren zorro osagarrian, zorro amankomunaz harago, hiperfenilalaninemiaren baheketa, nahiz eta ez den berariaz ebaluatua izan osasun-teknologiaren ebaluaziorako txostenetan edo kostu-eraginkortasun txostenetan. Izan ere, aurkikuntza akzidental gisa detekta daiteke fenilzetonuriaren baheketa egiten denean, zeina jasota baitago Osasun Sistema Nazionaleko jaioberrien baheketarako zorro komunean.

Asturias, Kanariak, Kantabria, Valentziako Erkidegoa eta Balear Uharteak zortzi eritasun bakarrik ari dira bahetzen. Herrialdeko atzeratuenak dira, Gaztela eta Leon eta Nafarroarekin batera, zeinak bederatzi patologia ari baitira bahetzen, nahiz eta 2021eko otsailaren 15ean Nafarroak bi patologia gehitu dituen: astigar-jarabearen usaineko gernuaren gaixotasuna eta homozistinuria.

Gainerako autonomia erkidegoak patologia gehiago jasotzen joan dira beren zorroetan, jai-

berrien baheketarako zerbitzu-ematean. Erreferente gisa nabarmentzen dira Murtzia, Galizia, Andaluzia eta Aragoiko autonomia erkidegoak eta Ceuta eta Melillako hiri autonomoak, hogeita hamar patologia baino gehiago jasotzen baitituzte detekzio goiztiarreko programan.

Presakoa da, horrenbestez, konponbidea ematea egoera honi, Nafarroako haurrak desparekotasun-egoera argi batean baitaude Espainiako beste eskualde batzuetan jaiotakoan aldean. Jaioberrien bahetze areagotua ezartzeak ekarriko luke, kalkuluen arabera, urtero hamabi jaioberri ingururi bestelakoan oharkabean pasako liratekeen patologia detektatzea.

Halaber, arauak balio izan behar du Nafarroa etorkizunean autonomia erkidegoen aitzindaritzan jartzeko, hemopatía, immunoeskasia eta eritasun endokrino-metaboliko desberdinen detekzio goiztiarrari dagokionez, halatan haurren beste desgaitasun- eta morbiditate-egoera saihegarriak prebenitu ahal izateko, betiere ebidentzia zientifiko oinarri hartuta, baina ebidentzia hori eguneratzeko sistema azkar baten laguntzaz, eta emaitzen ebaluazioa bitzita errealeko datuekin eta sareko lanaren bidez eginik, ebidentzia berria sortzen laguntzeko, eta, halaber gaixoen ikuspegia kontuan harturik prestazioen definizioan, haien gauzatzean eta emaitzen ebaluazioan, arazoarekin ukiturik dauden Nafarroako familien elkarte bitartez.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeko 13/1982 Lege Organikoko 53. artikuluan xedatuari jarraikiz, eta Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrean ezarritakoari heldurik, zeina nafar herritarrek osasun-zerbitzuetarako duten eskubideei dagokienez aldatua eta osatua izan baitzen Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrak buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen bidez, Nafarroak eskumena du Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komunaren Zorroan jasorik dagoen osasun-laguntza areagotzeko.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da haurren desgaitasun eta morbiditate saihegarrien prebentzioa bermatzea, modu goiztiarrean detektatuz eta tratatuz eritasun metabolikoak, endokrinoak, hemopatiak eta immunoeskasia hereditarioak, jaioberrien bahetze areagotuko populazio-programa baten bitartez.

2. artikulua. Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programan jasotako patologiak.

1. Jaioberrien baheketa-arako probak eginen dira halako patologiak detektatzeko non, beren tratamendu farmakologiko edo dietetiko dela-eta, ebidentzia zientifikoa baitago jaioberritako epeko diagnostiko goiztiarrak abantailak izateari buruz terapia eraginkorrak lortzeari edo aholku genetikoaren bitartezko onurari dagokienez.

2. Foru lege honen ondorioetarako, joko da ebidentzia zientifikoa dagoela eta, horrenbestez, jaioberrien bahetze areagotura-ko populazio-programaren parte izanzen direla honako patologia hauek:

a) Tirosinemia, azidemia isobalerikoa, II. motako azidemia glutarikoa, azidemia metilmalonikoa, immunoeskasia konbinatuak, X kromosomari loturiko adrenoleukodistrofia, Pompe-ren sindromea, azidemia propionikoa eta 1. motako mukopolisakaridosiak.

b) Une bakoitzean eransten direnak, Osasuneko kontseilariaren foru agindu bitartez, 5. artikuluan arauturiko Adituen Batzorde Diziplaniztunak ezarritako gomendioei jarraikiz.

3. artikulua. Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programa eskuratzeko eskubidea.

Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programa eskubide bezala bermatuko zaie Nafarroan jaiotako haur guztiei, 2. artikuluan xedatzen duenaren arabera, Adituen Batzorde Diziplaniztunak bere gomendioak egin eta hurrengo aurrekontu-ekitaldian.

4. artikulua. Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programaren edukia.

Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programak barne hartuko ditu detektaturiko patologien diagnostiko-berrespena, tratamendua eta ondoko jarraipena.

5. artikulua. Adituen Batzorde Diziplaniztuna.

1. Adituen Batzorde Diziplaniztun bat eratuko da foru dekretu bidez. Gutxienez sei eta gehienez bederatzikidez osaturik egonen da, eta horien artean nahitaez egon beharko dira Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eta Nafarroako Ospitaleguneko Pediatria eta Análisi Klinikoen zerbitzuen ordezkariak; bai eta, onartu egiten badute, ANPE-Nafarroako Pediatria Elkartearen ordezkariak eta GERNA (Nafarroako Eritasun Arraroen Taldea) eta ANAP-KU (Nafarroako Fenilzetonuria eta metabolismoa-

ren beste nahasmendu batzuen Elkarte) taldeenak ere.

2. Batzorde horrek gutxienez ere urtean bi bider, urte bakoitzeko lehen eta hirugarren hiru hilabeteetan, eginen ditu bilerak eta ebidentzia zientifikoaren balorazioa, xede duela jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programan patologiak sartzeko gomendioak egitea, zeinak lotesleak izanzen baitira.

3. Batzordeak bere kideen gehiengoz erabakiko ditu bere gomendioak, zeinak Osasuneko kontseilariari bidaliko baitzaizkio, jasoak izan daitezen jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programa areagotzeko foru agindu batean.

Foru lege honek zehazten ez duen orotan, Adituen Batzorde Diziplaniztunaren funtzionamendua arautuko da jarraiturik martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoak, kide anitzeko organoei dagokienez ezarritakoari.

Lehen xedapen gehigarria. Datu-informaziorako sistema.

Nafarroako Gobernuak halako datu-informaziorako sistema bat ezarriko du non horien anonimizazioa ahalbidetuko duen, populazio-emaizak eta programaren eraginkortasuna Bizitza Errealeko Datu konparagarriekin ebaluatu eta ikertzeko, eta horiek beste osasun-sistema erregional eta internazional batzuekin partekatu ahal izateko.

Bigarren xedapen gehigarria. Jaioberrien baheketa areagotura-ko programaren ebaluazioa.

Nafarroako Gobernuak gutxienez ere urtean behin eginen du programaren ebaluazioa. Horren berri Nafarroako Parlamentuari emanen dio urte bakoitzeko urtarilean eginiko aurkezpen batean, eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren urteko oroitidazkian argitaratuko da, herritar guztien eskueran ipinita.

Lehen xedapen iragankorra. Patologiak jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programan sartuak izateko epeak.

Ezertan eragotzi gabe 3. artikuluan xedatutakoa, Nafarroako jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programan beranduenik ere 2022ko urtarilean sartuko dira 2.2. a) artikuluan zehazten dituen patologiak.

Bigarren xedapen iragankorra. Adituen Batzorde Diziplinantzuna abian jartzea.

Foru lege honek indarra hartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean eratuko da 5. artikuluan arauturiko Adituen Batzorde Diziplinantzuna.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoari kontra egiten dioten lege- edo erregelamendu-xedapenak.

Azken xedapenetako lehena. Erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege honetan xedatuaren erregelamenduzko garapena egiteko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak “erabakitzeko eskubidea” deritzonaren eskakizuna dela-eta arlo orokorrean duen jarrerari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Gobernuak “erabakitzeko eskubidea” deritzonaren eskakizuna dela-eta arlo orokorrean duen jarrerari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak “erabakitzeko eskubidea” deritzonaren eskakizuna dela-eta arlo orokorrean duen jarrerari buruzkoa.

Zioak: Legebiltzarrari eta Nafarroako gizarteari aditzera ematea zein irizpide nagusitzen den Gobernuan eta hura babesten duten taldeetan “erabakitzeko eskubidea” deritzonari dagokionez, zeina joan den legegintzaldian eskatu baitzuten aurreko gobernua babesten zuten eta gaur egungoa osatzen edo babesten duten alderdi eta koalizioek.

Iruñean, 2021eko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lehentasunezko txertaketa-taldeetan sar ditzan zenbait gaixotasun dauzkaten pertsonak.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita lehentasunezko txertaketa-taldeetan sar ditzan zenbait gaixotasun dauzkaten pertsonak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Honako hauek modu orokorrean aitortuta:

– COVID-19aren pandemiaren larritasuna eta maila guztietan dituen ondorioak,

– Eguneroko bizitzan, alor guztietan, dituen eragin guztiz desberdinak,

– Arlo guztietatik (zientzia, osasuna, ekonomia, gizartea eta politika) pandemiaren aurka egiten ari diren ahalegin guztiak egokitzeko beharra,

– Erne egoteko beharra, bai eta ahalegin horien planifikazioa egokitzeko ere, infekzioaren ezaugarrietan eta populazioarekiko ezaugarriek dituzten aldaketan arabera,

– Osasuneko profesionalak egiten ari diren lan itzela,

– Ikerlarien lan goraipagarria,

– Pandemiari erantzun koordinatu eta adostu bat emateko konpromisoa,

– Arlo desberdinetako profesionalen diziplina anitzeko lana,

– Hainbat arlotan lortutako adostasuna, pandemiaren ezaugarriak bezala aldakorra dena,

– txertoen Programarako eta Erregistrarako Ponentziako COVID-19aren txertaketako lantalde teknikoak lortutako azken adostasuna, 2021eko otsailaren 9an jakitera emana, COVID-19ari aurre egiteko txertatze-estrategiaren hirugarren bertsioan, eta

– Lantaldeak aipatzen duen bezala, estrategia modu jarraituan berrikusi eta eguneratzearen ego-

kitasuna, ebidentzia berrien, txertoen eskuragarritasunaren eta egoera epidemiologikoaren arabera.

– Beharraren, ekitatearen eta elkarrekikotasunaren printzipioen balioa, testu horretan aipatzen direnak eta geure egiten ditugunak.

– Geure onarpena, bai osasuneko profesionalen 2. eguneraketako 3. taldea bikoizteari –3A eta 3B taldeetan– bai eta 6. taldea “Gizartearentzat funtsezko eginkizuna duten jarduneko kolektiboak” sartzeari ere.

Ulertezin zaigu zenbait prozesu duten pertsonak, esaterako, minbizia, giltzurrun-gaixotasun kronikoa, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, Down-en sindromea, gaixotasun kardiologikoak, obesitate larria, haurdunaldia, organoen transplantea, tabako-ohitura, zelula faltziformeen gaixotasuna eta 2 motako diabetes mellitusa, txertaketan oraindik kontuan hartu ez izana. Izan ere, gaur egun ebidentzia nahikoa dago uste ahal izateko pertsona horiek larriki gaixotzeko arriskua dutela birusarekin kutsatuz gero, CDCek aitortu duten bezala.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du, ahalik lasterren lehentasunezko txertaketa-taldeetan sar ditzan honako hauek dauzkaten pertsonak: minbizia, giltzurrun-gaixotasun kronikoa, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa, Down-en sindromea, gaixotasun kardiologikoak, obesitate larria, haurdunaldia, organoen transplantea, tabako-ohitura, zelula faltziformeen gaixotasuna eta 2 motako diabetes mellitusa.

Iruñean, 2021eko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Zarrakaztelun osasun etxe berria eraiki dezan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Zarrakaztelun osasun etxe berria eraiki dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Zarrakaztelun osasun etxe berria eraiki dezan.

2020ko otsailaren 27an, Nafarroako urte horretarako Aurrekontu Orokorra onesteko eztabai-

dan, publikoki iragarri zen Osasun Departamentuan 2020rako aurreikusitako inbertsioen arloan aurreikusitako jarduketan artean osasun etxe berri bat eginen zela Zarrakaztelun.

Baina 2020. urte osoan ez da inolako ekin-tzarik egin, nahiz eta osasun etxe hori, orain dela hainbat hamarkada egina, txiki gelditu den Zarrakazteluko osasun eskualde oinarritzeko populazioari kalitatezko erantzuna emateko.

Eraikinean ez dago arreta komunitariorako eta talde-osasunari buruzko hezkuntzarako aretorik, talde-fisioterapia egiteko gimnasia, kirurgia txikia egitekorik edo ekografiak baldintza onen-tan egitekorik.

Halaber, COVIDerako edo kutsatzeko arriskua duten beste larrialdietarako zirkuitu bikoitza edukitze-ko aukera beharrezkoa da, bai eta eskualde oinarritzeko osoko estualdi eta larrialdiei arreta emateko eremuak egokitzea ere.

Saiatu behar da osasun etxe berriak efizientzia energetikoa izan dezan. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2021. urtean zehar bete ditzan Zarrakazteluko osasun etxe berria eraikitze-ko proiektua prestatzeko eta esleitzeko lanak, bai eta eraikuntzako obrak esleitzea eta hastea ere.

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira batera lan egin dezaten Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan “Nafarroako euskalkien aipamena” izeneko sartzearen alde.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen baitira batera lan egin dezaten Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan “Nafarroako euskalkien aipamena” izeneko sartzearen alde.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den Iñaki Iriarte Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko.

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen baitira batera lan egin dezaten Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan “Nafarroako euskalkien aipamena” izeneko sartzearen alde.

Denbora luzean zehar aldaera dialektalak hizkuntza erabiltzeko era apal eta hezigabetzat hartu ohi izan dira. Halatan, irakaskuntza ofiziala aldaera horiek desagerrarazten saiatzen zen, aldi berean aldaera normalizatuaren ezagutza eta erabilera sustatuz. Ikuspegi horren ondotik beste bat iritsi da, hizkuntzalari askok defendatzen dutena, alegia, dialektoak ez direla aldaera okertzat jo behar, hizkuntza baten aldaera ez-nagusiak besterik ez direlako. Teoria hori muturreraino eramanez gero, egia da, ezinezkoa izanzen litzateke erabilera jasoak eta arruntak desberdintzea, are akats gramatikalak zuzentzea ere. Gainera, dialekto bakoitzaren hiztunek berek ere forma batzuk zuzen eta onargarritzat hartzen dituzte, eta beste batzuk ez. Bestalde, arazo saihestezina da hizkuntza baten

aldiera guztiak parekatuz gero hizkuntza zatikatzera eta hiztunen arteko ulergarritasuna oztokatzera abiatuko ginatekeela. Edonola ere, hizkuntza bakoitzaren historiak eta literaturak adierazten dute aldaera horien lekua eta onargarritasuna.

Euskararen kasuan, Arantzazuko 1968ko Biltzarretik aurrera euskara batua prestatu zen arte, euskal literatura soil-soilik aldaera dialektaletan edo egile bakoitzaren jeinuak sortutako supradialektoetan idatzi zen. Dialektoak, beraz, ez dira euskararen erregistro jasoetatik kanpo egon hizkuntzaren historiaren zati handiengan. Eta XIX. mendeko azken herenetik aurrera euskararen aitortza eta berreskurapenerako mugimenduaren buru izan zirenen artean ere aldaera dialektal horiek begikotasunez eta maitasunez ikusten ziren.

Bizkaieraren kasuak erakusten duen bezala, gaur egun euskalkien aitortza eta transmisioa ez dira beharrezkoa den euskara batua ezagutzeko oztoko gisa ikusi behar. Izan ere, hizkuntza gutxituen kasuan, dialektoen ezagutzak balio du hiztunak bere hizkuntzarekiko loturak indartzeko, errazten diolako gertueneko testuinguruarekiko harremana eta eguneroko erabilera naturalizatzea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak ematen duen Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan “Nafarroako euskalkien aipamena” izeneko sartzeari luke ikasleei euskalkietan irakasteko gai diren maisu-maistrak prestatzeko. Gainera, lagunduko luke gure ondare kulturalaren zati horri prestigioa ematen, eta euskaldungoa kohesionatzeko balioko luke. Azkenik, maisu-maistrei erraztuko lieke euskara batua hedatu aurreko euskal literaturara iristea.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako Departamentua zein Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen ditu batera lan egin dezaten Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan “Nafarroako euskalkien aipamena” izeneko (30 kreditu) sartzearen alde.

Iruñean, 2021eko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren elkarrizketak eranstera Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioetan, Nafarroak ahalik eta eskumen gehienak eduki ditzan energia-politikaren arloko araugintzan eta zergapetzean.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urtiaga jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren elkarrizketak eranstera ditzan Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioetan, Nafarroak ahalik eta eskumen gehienak eduki ditzan energia-politikaren arloko araugintzan eta zergapetzean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Jabi Arakama Urtiagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Europar Batasuneko estatu kideek konpromisoa hartu dute produkzio- eta kontsumosistemaren egiazko deskarbonizazioa datozen hamarkadetan lortzeko. Helburu esplizitua da 2030ean iturri berriztagarrietatik lorturiko energia-rena izatea guztizko energia-kontsumoaren % 50, eta 2050ean, % 100. Nafarroak gaur egun horrelako iturrietatik lortzen duen portzentajea % 22koa da, eta horrek ideia bat ematen digu etorkizunari begira daukagun erronkaz.

Bide hori eredu berri baten eskutik egin beharra dago, arlo sozioekonomikoan, ekoizpenarenean eta kontsumoarenean, halako moldez non, bizimodua aldatuz energia-kontsumoa murriztetik abiatuta, oinarritzko jarduerak hornitzeko nahitaezko plangintzari ekinen baitzaio. Premia horiek energia berriztagarriak hartu beharko dituzte oinarri, eta energia-efizientzia, zirkulartasuna eta

jasangarritasuna, printzipio. Zer esanik ez, inguruarena eta biodibertsitatea errespetatuz. Horretarako, beharrezkoa da lehentasuna ematea hiri-lurretan eta urbanizagarri direnetan energia berriztagarriaren iturriak instalatzeari, jadanik badauden parkeak indarberritzeari, autokontsumoari eta hurbileko kontsumoari.

Nafarroako erakunde publikoek ezinbesteko eginkizuna bete behar dute gizartea sentsibilizatzeko aldera gure jarduera guztien deskarbonizazioaren garrantziaz, eta beren gain hartu behar dute gure jardueren deskarbonizaziorantz eraman gaitzaketen udal-, elkar-, enpresa- edo gizarte-alarretako ekimenei bultzada ematea.

Nafarroak behar adinako baliabide natural eta erakundeen, enpresen eta ikerketaren alorretako jakintza dauzka prozesu honen aitzindari izateko, eta lortzeko gure erkidegoak etorkizun hurbilean energia-alorreko subiranotasuna izan dezan. Ezin dugu askietsi Espainiako Gobernuaren politiken jarraikeria egitea, hark urte gehiegi baitaramatza gogotsuago ordaindurik isunak ezen ez europar agintarien gomendioak jarraiturik, eta 2019ko apirilera arte autokontsumoa are legez zigortu egiten zuen. Horretarako giltzarri deritzogu energiaren alorrean autogobernu-maila gorena izateari.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren elkarrizketak eranstera Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioetan, Nafarroak ahalik eta eskumen gehienak eduki ditzan energia-politikaren arloko araugintzan eta zergapetzean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako energia-politikaren lege-araubide integrala ezar dezan, taxutuz jardute jasangarrirako eremu orokor bat, kontsumoaren plangintza, eta egungo nahiz etorkizuneko proiektuetarako ibilbide-orria eta bideragarritasunerako bidea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Energia Agentzia sor dezan, eginkizun izanen duena osotasunean arautzea araugintza, zergapetzea, anto-

laketa, energia-lizentzien emakida, jardueren kudeaketa, ebaluazioa, kontrola eta abar.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du lankidetzara publiko-privatuari bultzada ematen segi dezan, klusterrak eta guneak eratuz eta sendotuz, haietan erakunde publikoek, enpresek, unibertsitateek eta zeresana daukaten gizarte zibileko gainerako kolektiboek elkarreraginean jardun dezaten.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du berma dezan kontrol publikoko araubide argi baten pean egon daitezela ustiapen-lizentzia publiko bidezko emakida bidez baimenduak izanik energia berriztagarrietan oinarrituta dauden parkeak, orekari euts dakion lurraldearen, ingurumenaren, paisaiaren, gizartearen eta ekonomiaren alorretan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urtiaga

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen da berma dezan familia guztiak baldintza beretan matrikulatu ahal izatea titulartasun publikoko haur-eskoletan, desberdintasun-egoerak saihestuz.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita berma dezan familia guztiak baldintza beretan matrikulatu ahal izatea titulartasun publikoko haur-eskoletan, desberdintasun-egoerak saihestuz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan otsailaren 4an, Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak onetsi zuen udalaren titulartasuneko haur-eskolen doakotasuna 2021-2022 ikasturtera-

ko. Osoko Bilkuraren erabaki hori Navarra Sumak eta PSNk 2021erako lortu duten aurrekontu-akordioaren barruan jasotzen da.

Onetsitako neurriaren arabera, Iruñeko Udalak bere gain hartuko ditu eskolatze- eta matrikulagastuak, eta familiek ordaindu beharko dituzte jantokiari dagozkion kuotak, kokatzen diren errenta-tartearen eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ikasturte bakoitzerako ezarritako araudian aurreikusitako gainerako inguruabarren arabera.

Berriak zalaparta handia eragin du, batez ere beren seme-alabak haur-eskoletara eramaten dituzten familien artean. Alde batetik, poz handia eman die beren haurrak Iruñean, udalaren titulartasuneko haur-eskoletan matrikulatuta dituzten familiei, horietatik baitira neurri honen onuradunak, eta, bestetik, harridura eta haserrea sortu ditu beren haurrak Iruñean, Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko haur-eskoletan edota hiriburuz kanpoko haur-eskoletan matrikulatuta dituzten familietan.

Legegintzaldi honetarako sinatutako programa-akordioan aipatzen da "0-3 zikloaren doakotasunean eta unibertsaltasunean aurrera egitea". Irudi lezake Iruñeko Udalaren erabakia norabide horretan doala, baina ezin dugu ahaztu neurri horrek desberdinkeria egoera bat sortzen duela, haurrak nolako eskolara joaten diren: Iruñean, udalaren titulartasuneko haur-eskola batera, Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko haur-eskola batera edo Iruñetik kanpoko udal haur-eskola

batera. Hasteko, hiriburuaren barruan auzoen arteko diskriminazioa gertatzen da; izan ere, Sanduzelaiko Haur Eskola, Etxabakoizkoa, II Zabalgunekoa edo Alde Zaharrekoa –Nafarroako Gobernuaren titulartasunekoak– aukeratzen dutenek ez dute neurri horren onurarik jasoko (bada Nafarroako Gobernuarena den bosgarren haur-eskola bat txantrean, baina auzo horretan badira udalaren titulartasuneko beste bi haur-eskola ere). Egoera horren ondorioz, badira “lehen mailako auzoak” eta “bigarren mailakoak”. Era berean, badira lehen eta bigarren mailako udalerriak ere, Iruñekoak ez diren udal haur-eskola guztiak neurri honetatik kanpo geratzen baitira. Ezin dira doako zerbitzu publiko irisgarriak izan familia batzuentzat eta ez beste batzuentzat.

Baina ez dugu doakotasunean bakarrik aurrera egin behar, unibertsaltasunean ere sakondu behar da eta dagoen plaza kopurua handitu. Esaterako, 2019an, 0 eta 3 urte bitarteko 6.464 haur zeuden Iruñean eta eskaintzen ziren plazak 914 ziren;

beraz, populazioaren % 14,13 besterik ez zuten estaltzen.

Gure ustez, doakotasunean eta unibertsaltasunean aurrera egiteko, beharrezkoa da plan bat taxutzea eta 0-3 zikloarekin zerikusia duten alderdi guztien arteko elkarrizketa. Eta, batez ere, beharrezkoa da 0-3 zikloari berezkoa duena aitortzea, hezkuntza-zikloa baita eta ez arreta-zerbitzu bat.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du beharrezkoak diren eta eskura dituen baliabide guztiak jar ditzan eta inplikaturiko alde guztiak hitz egin dezan, titulartasun publikoko haur-eskoletan matrikulaturiko haurrak dituzten familia guztiak baldintza beretan matrikulatu ahal izatea bermatzeko eta desberdintasun-egoerak saihesteko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak bultzatuz jabetza pribatua defendatzeko, herritarren bizikidetzaren eta segurtasuna bermatzeko eta etxebizitzak legez kanpo okupatzearen aurka borrokatzeko.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren neurriak bultzatuz jabetza pribatua defendatzeko, herritarren bizikidetzaren eta segurtasuna bermatzeko eta etxebizitzak legez kanpo okupatzearen aurka borrokatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakartzeko, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du etxebizitzak legez kanpo okupatzea dela-eta herritarren bizikidetzaren eta segurtasuna bermatzeko, eta Lehendakartzeko, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordean eztabaida dadin eskatzen du.

Jabetza pribaturako eskubidea zuzenbide-estatuaren erakunde-arkitekturaren parte da. Funtsezkoa da hura babestea. Horixe dio Espainiako Konstituzioaren 33. artikulua, bai eta Kode Zibila eta gure ordenamendu juridikoko beste arau batzuek ere. Azken aldi honetan, Espainiako gizarte oso fenomeno kaltegarri baten lekuko izaten ari da; hain zuzen ere, lege-erregulazio eskasaz baliatuta, askotan familia kalteberen aurka egin duten taldeen fenomenoaren lekuko: etxebizitzak legez kanpo okupatzea.

Arazo hori behar bezala ulertzeko, ezinbestekoa da hiru zehaztapen egitea. Lehenengoa juridikoa da: jabetza-eskubidea babestu behar duten

bermeak. Ere horren barruan, etxebizitzak legez kanpo okupatzearen aurkako erreakzio juridikoak daude, zeinak askotan, "usurpazio" delitutzat hartzen baitira, eta Zigor Kodean besteren higiezinak baimenik gabe erabiltzea bezala tipifikatzen baitira (245.2 artikulua).

Bigarren bereizketa, oraingoan izaera politikoa, honako kasu hauei buruzkoa da: batetik, premia- eta kalteberatasun-egoeretako edo hipotekabetearazpenen ondoriozko utzarazpen-kasuei buruzkoa; eta, bestetik, legez kanpoko okupazioak barne hartzen dituzten kasuei buruzkoa. Izan ere, biak ala biak jabetza-eskubideaz gabetza dira; halere, etxebizitzaren biktimek gure babes osoa merezi duten arren, legez kanpoko etxebizitza-okupazioek, aitzitik, gure gaitzespen osoa merezi dute.

Azkenik, legez kanpoko bi okupazio mota bereizi behar dira. Alde batetik, delinkuentzia antolatua arloko gizabanakoek edo taldeek egiten dituztenak, lan horiek alde aurretik pentsatuta eta irabazteko asmoz egiten dituztenak, ahulezia-egoeran dauden eta babestu nahi ditugun pertsona horietaz baliatuz, batzuetan estortsioa eginez, beren etxebizitza berreskuratzeko aurretiko baldintza gisa konpentsazio ekonomiko bat lortzeko; eta, bestetik, sistemaren aurkako taldeek egiten dituztenak.

Bi taldeen aurka legearen eta jabetza pribatuaren alde jardun behar da. "Okupazioa" legez kanpoko egintza bat da, botere publikoen gaitzespena merezi duena. Jabeak eta bizilagunak biktima bihurtzen ditu. Izan ere, bizilagunen komunitateek ere bizikidetzaren narriadura jasaten dute; adibidez, "narkopisu" deritzenen droga-trafikoa da kasurik muturrekoena. Bestalde, jabeak eta maizterrak opor batzuetatik edo kanpoan emandako denbora labur batetik itzultzean beren etxean sartu ezinik suertatzen dira. Hala, jabetza pribatuaren babes eskasaren eta prozedura judicialen moteltasunaren ondorioz, jabe eta bizilagun horiek arazo larri bati egin behar diote aurre, eta, gaur egun, ez dago bidezkoa eta eraginkorra den konponbiderik. Are gehiago, "okupazio"ari buruzko zenbakiak argazki oraindik ere kezagarriagoa eskaintzen digute: legez kanpoko okupazioek hazkunde handia izan dute azken urteetan.

Azken batean, ondoriozta daiteke gaur egun gure ordenamendu juridikoa ez dela gai herritarrei beren jabetzaren edukitza eta gozamen baketsua behar bezala bermatzeko, lege-bideak nabarmen eskasak baitira. Premiazkoa eta beharrezkoa da, beraz, legez kanpoko okupazioaren fenomenoari bere osotasunean aurre eginen dioten hainbat lege-aldaketa sartzea. Horregatik, Arartekoak, 2016ko abenduan, ofiziozko jarduketa bat hasi zuen Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren aurrean, Espainian higiezinaren legez kanpoko okupazioa handitu izana nabarmentzen duten herritarren kexengatik, eta kautelazko neurriak hartzeko bide egokiak aurreikustea gomendatzen zuen, higiezinaren titularrari higiezinaren edukitza eta gozamena berehala itzultzeko, prozedura judicial azkarra izapidetuta.

Komeni da azpimarratzea zuzenbide konparatuak ikuspegi hori babesten duela. Gure inguruko ia herrialde guztiek dituzte prozedura azkarrak eta eraginkorrak, epaile baten esku-hartzearen bidez edo, besterik gabe, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen bidez, okupatzaileei etxebizitza utzarazteko eta, berehala, etxebizitza baten jabetza eta edukitza legezko jabeari itzultzeko. Besteak beste, Holandak, Frantziak, Ingalaterrak, Alemaniak, Italiak eta Danimarkak beren legezko jabetza epe labur samarrean berreskuratuko dutela bermatzen diete herritarrei; Espainian, berriz, duela gutxi lege-aldaketak batzuk egin dira, herritarrei eskubide hori bermatzearen aurka doazena.

Aurreko guztia kontuan hartuta, jabetza pribatua defendatzeko, herritarren bizikidetzaren eta segurtasuna bermatzeko eta etxebizitzak legez kanpo okupatzearen aurka borrokatzeko, Navarra Suma talde parlamentarioak honako ebazpen-proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak bultzatzen jabetza pribatua defendatzeko, herritarren bizikidetzaren eta segurtasuna bermatzeko eta etxebizitzak legez kanpo okupatzearen aurka borrokatzeko. Honako hauek, besteak beste:

– etxebizitzaren legez kanpoko okupazioaren aurkako foru plan bat egitea, legez kanpo okupatutako higiezinak legezko jabeari itzuliko zaizkiela ziurtatzeko. Plan horrek barnean hartuko ditu bai legez kanpo okupa daitezkeen abandonatutako higiezinaren segurtasuna eta zaintza indartzeko neurriak, bai aholkularitza eta orientazio juridikoko zerbitzuak ukitutako jabeen eskura jartzea.

– Tarifikazio bereziko telefono-zenbaki bat gaitzea, 900 izenekoetakoa, doakoa izan dena eta okupatutako etxebizitzari buruzko erreklamazioak

zentralizatuko dituen eta jabeen aholku eman ahal izan dena.

– Tarifikazio bereziko telefono-zenbaki horretara egiten diren deietan harremanetan jar daitezela deitzen duena eta langile espezializatua (Barne Zuzendaritza Nagusikoak, etxebizitza Zuzendaritza Nagusikoak edo Nafarroako Gobernuaren mendeko enpresa espezializaturen batekoak), okupatutako etxebizitza utzarazteko beharrezko kudeaketak bideratzeko eta egiteko.

2. Erakundearen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea, bai eta jarduteko protokolo komun bat egitea ere, higiezinaren legez kanpoko okupazioaren aurkako borrokan eraginkortasuna indartzeko, bereziki, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen, Nafarroako Foru Poliziaren eta Udaltzaingoen artean, bai eta Justizia Administrazioarekin ere, herritarren segurtasunaren eta bizikidetzaren aurkakoak diren okupazioetan azkar jardutea bermatzeko.

3. Espainiako Gobernua eta Gorte Nagusiak premiatzea beharrezkoak diren lege-erreforma guztia sustatu ditzaten jabetza pribatua defendatzeko, herritarren bizikidetzaren eta segurtasuna bermatzeko eta etxebizitzak legez kanpo okupatzearen aurka borrokatzeko; honako hauek, besteak beste:

– Legez kanpo okupatutako higiezinak utzaraztearekin zerikusia duten epailetak ahal den neurrian arintzea, eta etxebizitza legezko jabeen berehala itzultzea aurreikustea, salatutako maizterrak ezin duenean egiaztatu higiezinaren legez okupatu dela zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez;

– Jabeen batzarrak gaitzea, auzotarren erkidegoaren elkarbizitzari eragiten dioten eta legez kanpo okupatuta dauden higiezinak utzaraz daitezkeen eskatzeko.

– Udalek etxebizitzak legez kanpo okupatzen diren kasuetan herritarren segurtasuna eta bizikidetzaren zaintzeko dituzten eskumenak indartzea, eta horiek baliatzen ez dituzten jabeen subrogatzeko ahalmena ematea, herritarren segurtasunari eta bizikidetzari eragiten dioten legez kanpoko okupazioetan.

– Indarkeriaz edo gauzetan indarrak erabiliz egiten diren higiezinaren legez kanpoko okupazioei buruzko delituen zehapen penalak gogortzea, baldin eta mafiek babesten badituzte, irabazi asmoarekin egiten badira edo beste delitu batzuk egiteko erabiltzen badira, hala nola sexu-esplotazioarako salerosketa edo droga-trafikoa.

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen da kirol-jarduera funtsezko jardueratzat hartzera, eta Espainiako Gobernuari eskatzen zaio jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako zerbitzuen balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) jaisteko.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita kirol-jarduera funtsezko jardueratzat hartzera, eta Espainiako Gobernuari eskatzen baita zaio jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako zerbitzuen balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) jaisteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da kirol-jarduera funtsezko jardueratzat hartzeko, eta Espainiako Gobernuari eskatzen zaio jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako zerbitzuen balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) jaisteko.

Pandemiak herritarren osasunean jarri du arreta, eta autozainketa eta prebentzioa sustatu ditu. Jarduera fisiko moderatua funtsezkoa da sistema immunologikoa indartzeko; izan ere, gorputzak infekzioen aurrean duen defentsa natural gisa defini daiteke. Hainbat azterlanek egiaztatzen dute kirola egiteak eragin positiboa duela pertsonen osasunean. Ariketa egitea da COVID-19aren aurkako prebentzio-tratamendurik onenetakoa.

Espainiako Obesitate Elkarteak (SEEDO) egindako "Obesitatea, Konfinamendua eta COVID-19a" azterlanaren arabera, joan den uztailan espainiarren % 44 kilo bat edo hiru loditu ziren konfinamenduan, bizimodu sedentarioagoa izatearen ondorioz. Era berean, azterlanak agerian utzi zuen pisu gehien hartu zuten pertsonak gizonegiak lehendik ere. Oso gai garrantzitsua da hori, koronabirusarekin egoera larrian egon ziren pazienteen % 80k obesitatea baitzuten.

Adinarekin batera, obesitatea da pertsona batengan koronabirusa modu larrian edo hilgarrian agertzeko arrisku-faktore nagusietako bat. Espainiako beste azterlan batean, zeinean koordinatzaileetako bat Gregorio Marañón ospitalea izan baitzen, heriotza-arrisku handiagoarekin lotutako 17 aldagai bitarte aurkitu zituzten. Horien artean, obesitateaz eta adinaz gain, azpiko beste patologia batzuk ere bazeuden, hala nola hipertentsio arteriala, zirrosi hepatikoa, gaixotasun neurologiko kronikoa, minbizi aktiboa eta demenztzia.

Gaixotasun horiek, askotan ezinbestean agertzen badira ere, prebenitu edo kontrolatu egin daitezke, bizimodu ona eramanez, elikadura osasungarriarekin eta ariketa fisikoa erregulartasunez eginez. Sasoi onean egotea babesgarri gerta daiteke COVID-19a duten pazienteen ospitaleratzeke eta hiltzeko arrisku handiagoarekin dirudienek lotuta dauden faktore batzuetatik, hala nola gehiegizko pisua, diabetesa, hipertentsioa, gaixotasun kardiobaskularra eta biriketako gaixotasuna.

Kirolaren zeharkako izaerak eragin positiboa du beste sektore batzuetan, hala nola osasun-sektorean edo sektore ekonomikoan. Horrela, esan daiteke kirola egiteak gastu sanitarioa edo lan-absentismoa murriztea dakarrela, eta langileen artean jarduera fisikoa eta kirola sustatzeak, berriz, osasuna eta enpresen errentagarritasuna hobetzen dituela.

Kirolaren Kontseilu Nagusiak (CSD) bizimodu osasungarria sustatzeko jarduerak aztertu ditu; izan ere, langileen artean jarduera fisikoa eta kirola sustatzeak haien osasuna eta enpresen errentagarritasuna hobetzen ditu, eta haien osasuna, autoestimua eta kontziliazioa hobetzen ditu; gai-

nera, enpresei errentagarritasun handiagoa ematen die, laneko bajen kopurua nabarmen murrizten delako eta produktibitatea handitzen delako.

Kirola egitea, COVID-19ari aurre egiten laguntzeaz gain, funtsezko tresna da osasun mentala hobetzeko, zeina oso hondatuta dago egoeraren ondorioz. Kirola antidepresibo naturalizat hartzen da, eta, beraz, onuragarria da antsietate- eta depresio-egoerei aurre egiteko; besteak beste, Osasunaren Mundu Erakundeak duela gutxi izendatu duen "neke pandemikoa" sor dezaketen egoerei.

Haren onurak bai prebentiboak bai errekupeziokoak dira, eta, ildo horretan, zenbait azterlanek adierazi dute ariketa moderatua egitea tresna ona dela, tratamendu farmakologikoekin batera, COVID-19a pairatu duten pertsonen gaitasun kardiobaskularra berreskuratzeko bidean.

Prebentzioa eta osasuna zaintzea ezinbestekoak dira edozein gaixotasunen eragina arintzeko. Hori dela eta, jarduera fisikoa sustatzeak lehentasuna izan behar du jarduera fisikoa egin eta susta dadin, eta osasun-ohitura horiek konprometitzen eta bultzatzen dituzten enpresak ere zaindu behar dira, ariketa fisikoa pandemia honen aurka borrokatzeko beste tresna bat dela ulertu behar baita.

Horregatik guztiagatik, Navarra Suma talde parlamentarioak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kirol-jarduera funtsezko jardueratzat har dezan, halako moduz non halakotzat hartu ahal izanen baita pandemian hura muga dezaketen balizko murriztapenak aplikatzeko garaian.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du kirol-instalazio eta -zentroetan eskaintzen diren kirol-zerbitzu guztietan BEZa % 21etik % 10era jaits dezan, bai eta jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak eta kirol-federazioetako tituludun teknikariek emandako zerbitzu guztietan ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema komunari buruzko Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauaren esparruan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legean sartu ahal dadin, gutxienez, herrialdea gaur egungo gizarte- eta ekonomia-krisialdian dagoen bitartean, COVID-19aren pandemiak eragina dela eta.

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan NA 6900 errepidearen plataforma eta bazterbideak handitzeko, bidearen segurtasuna hobetze aldera.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko jarduketak egin ditzan NA 6900 errepidearen plataforma eta bazterbideak handitzeko, bidearen segurtasuna hobetze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketak egin ditzan NA-6900 errepidearen plataforma eta bazterbideak handitzeko, bidearen segurtasuna hobetze aldera.

NA-6900eko errepidearen kontserbazio-egoera, datuak eta ezbehar-tasa direla eta, Nafarroako Gobernuak premiazko inbertsioa egin behar du Fiteron Alhama ibaiaren gaineko zubia-
ren eta bidearen "segurtasuna bermatzeko". Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Lurralde Kohesiorako kontseilariaren esanetan, ez du aurreikusten epe laburrean esku-hartze esanguratsurik egitea, kontserbazio arruntekoak direnez harago.

Bide horren izaera, bereziki N-113 errepidetik Fiteroko herrigunera doan NA-6900 tartea, ibilgai-luen zirkulazioa (herria bisitatzen duten 20.000 turista baino gehiagoren % 62 baino gehiago

bainuetxearen gunean sartzen dira, eta industrialdea bertan dago), bazterbiderik ez izatea eta galtzada estua izatea direla eta, desiragarria da plataforma berehala handitzea.

NA-6900 errepidea joan-etorri askoko bidea da, eta istripu-iturri larria bilakatzen ari da. Bidean bazterbiderik ez dagoenez eta bertatik industrialderantz doazen kamioiak ibiltzen direnez, errepidea gero eta arriskutsuagoa da. Fitero funtsezko herria da Nafarroako geografian, Errioxako autonomia-erkidegoarekin mugakide den udalerrria baita. Baina, gainera, Foru Komunitateko hotel-komplexurik handiena du, urtero milaka bisitari hartzen dituena. Errepide horren obrari ekiteak guneko irisgarritasuna erraztuko luke eta inguruko turismoari nabarmen lagunduko lioke.

Gainera, NA-6900 errepidea industrialdearekin lotuta dago, eta, beraz, ezinbestekoa da bazterbidea handitzea eta bidea hobetzea, kamioiak ibili ahal izateko. Baina, era berean, asko lagunduko luke industrialdea biziberritzen. Lanpostuak sortzeko beharrezko ekintza. Gaur egun, Fiteroko langabeak % 20 baino gehiago dira.

Fiterok urteak daramatza NA-6900 hobetzeko eskatzen. Hainbat alderdi politikok konpromiso asko hartu dituzte, baina, gaur egun, Erriberako herri horrek oraindik ere bere herrirako sarbidea handitzeko eta hobetzeko beharra du.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. N-113 eta Fitero arteko zatian N-6900 errepidea aldatzeko proiektua urgentziaz diseinatu eta gauzatu dezan, bideko segurtasuna hobetzeko.

2. Proiektuan Alhama ibaiaren gaineko zubia-
ren hobetzea sar dezan.

3. 2021ean zehar proiektua gauzatzen hasteko behar den zuzkidura ekonomikoa jaso dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “analfabetismo digitala desagerrarazteko prestakuntza-ekintzen eta gaitasun digitalen plan” bat ezar dezan.

UNIBERTSITATEKO, BERRIKUNTZAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO BATZORDEAN IZAPI-DETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita “analfabetismo digitala desagerrarazteko prestakuntza-ekintzen eta gaitasun digitalen plan” bat ezar dezan, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko

Batzordean izapidetu dadin. Mozioa 2021eko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00012).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Soldata-berdintasunaren Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du, aurten ere, heldu den otsailaren 22an eginen den Soldata-berdintasunaren Egunaren ospakizunarekin.

2. Adierazten du beharrezkoa dela sakontzea emakumeek beren beregaintasun ekonomikoaren esparruan dituzten baldintzen hobekuntzan eta, horrenbestez, bizitza duin bat izateko baldintza materialen bermean.

3. Adierazten du beharrezkoa dela estatuko arau baten prestaketan aurrera egitea. Arau horrek lan arloko desberdinkeria, zeina soldatarakalan gauzatzen baita, murrizteko jarduketa zehatzak jasoko ditu.

4. Adierazten du beharrezkoa dela lanean jarraitzea genero ikuspegiarekin ekiteko, aurreikusita dagoen moduan, COVID-19ari erantzuteko

plan eta errekupeazio-pakete guztiei, edota laster onetsiko den enplegu planari.

5. Bat egiten du Europako Parlamentuak duela gutxi “Batasunak genero berdintasunerako duen estrategia”ri buruz onetsitako Erabakiarekin. Emakumeak gehiengo diren sektoreetan, hala nola zaintzan, osasungintzan eta txikizkako salmantan, ordainsariak eta lan baldintzak berdintzearen alde egiten du bertan, bai eta soldatetan eta pentsoetan genero-arrakala eta lan merkatuko segregazioa desagerraraztearen alde ere; izan ere, egiazko berdintasunak ezinbestekoa du beregaintasun ekonomikoa eta emakumeek arlo profesionalean etorkizuna izateko aukera. Horrenbestez, enpleguaren arloko berdintasuna helburua da bere horretan, baina, era berean, tresna erabakigarria ere bada: emakumeen eskubide eta askatasunen gozatze osoa berdintasunaren eta beregaintasun ekonomikoaren bidez soilik eraiki daiteke”. (10-21/DEC-00006).

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat gaitzetsi eta arbuiatzen baitu Azagran izandako indarkeria matxistako ekintza.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Erabateko gaitzespena eta arbuioa agertzen du indarkeria matxistako ekintza honekiko, eta erasoturiko emakumeari eta haren inguruari elkartasunik zintzoena eta haren egoeragatiko kezka helarazten die, bai eta ahalik eta lasterren sendatzeko nahia ere.

2. Konpromisoa hartzen du indarkeria sexista eta edozein motatako sexu-indarkeria desagerrazteko asmoz lan egiteko. Alde horretatik, prebentzioaren, sentsibilizazioaren eta balio- eta berdintasun-hezkuntzaren aldeko bere apustua

berresten du, bai eta Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legea egiazki garatzearen aldeko apustua ere.

3. Bere konpromisoa adierazten du, lanean aktiboki jarraitzekoa emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria eta ahuldade egoerak sortzen dituzten desberdinkeria guztien aurka.

4. Herritar guztiak animatzen ditu errespetuan, berdintasunean eta bizikidetzan oinarritzen diren harremanak sustatzera eta edozein eraso sexista edo emakumeenganako indarkeria dakarren edozein jokabide errefusatu eta salatzerara”. (10-21/DEC-00009).

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

**Galdera, titulu homologaturik ez duten osasun arloko profesional migra-
tzaileak kontratatzeari buruzkoa.***JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, titulu homologaturik ez duten osasun arloko profesional migra-
tzaileak kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-
takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, honako gal-
dera hauek aurkeztu dituzte, Migrazio Politiketako
eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun di-
tzan:

1.- Zure ustez, zer azalpen dauka Eskubide Sozialetako Departamentuak ziurtatu izanak, 10-20/PES-00291 espediente zenbakia duen galde-
raren erantzunean, Migrazio Politiketako eta Justi-
ziako Departamentuak helarazitako zerrendetan
ez dela agertzen titulu homologatua duen inor?

2.- Zer zuzemen egin zituzten Migrazio Politike-
tako eta Justiziako Departamentuak, behin infor-
mazioa jaso eta Osasun Departamentura eta
Eskubide Sozialetako Departamentura igorritako-
an, pertsona migratzaile horien kontratazioa
ahalbidetzeko?

3.- Harreman pertsonalik izan al zen haiekin,
prestakuntza homologatua zuten pertsonekin
behintzat, prozesuan laguntza emateko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Pfizerren txertoari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Pfizerren txertoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1- Noiz hasi zen zehazki Nafarroan Pfizer-en txertoaren bialen seigarren dosia ematen?

2- Nola jakinarazi zitzairen txertaketa-taldee?

3- Non erregistratzen da bial jakin batean ezin badira 6 dosiak aprobetxatu?

4- Zenbat bialekin gertatu da hori? Zenbat dosi ezin izan dira aprobetxatu eta zergatik kasu bakoitzean?

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia “aldi baterako” kentzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera, goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia “aldi baterako” kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Zer egin du Nafarroako Gobernuak goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia “aldi baterako” ken dadin saihesteko?

Ba al daki departamentuak zergatik kendu den? Horiek ezagutuz gero, zein izan da enpresak hegaldi hori kentzeko izan duen arrazoia?

Egin al da ukitutako erabiltzaile-kopuruari buruzko zenbatespenik?

Zein da goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia berritzeko gutxi gorabeherako data?

Iruñean, 2021eko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, kalitate-figurak sustatzeko Landa Garapenerako Programen 2021eko deialdiari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, kalitate-figurak sustatzeko Landa Garapenerako Programen 2021eko deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Kalitate-figurak sustatzeko Landa Garapenerako Programen 2021eko deialdiaren egoera.

Iruñean, 2021eko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, langile publikoen prestakuntza eta gaikuntza teknologikoari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, langile publikoen prestakuntza eta gaikuntza teknologikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak langile publikoen heldutasun digitalaren maila ezagutzeko aukera ematen duen diagnostikorik egitea?

- Nafarroako Gobernuak diseinatu al du langile publikoentzako prestakuntza eta gaikuntza teknologikoko planik? Zer neurri aurreikusten ditu plan horrek edo aurreikusten dituzte plan horiek? Zein da plana gauzatzeko kronograma?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioko parlamentaria den Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

“Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostena aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak orain dela egun batzuk.

Madrilgo Karlos III. Unibertsitateko “Instituto de Derechos Humanos Bartolomé de las Casas”eko historialari batzuek egin dute txosten hori.

Txostenean jasotzen denez, 1975-1985ko hamarkada horretan eskuin muturreko talde horiek 26 atentatu egin zituzten Nafarroan. Hala ere, Euskal Memoriak argitaratu zuen “La guerra no declarada. Terrorismo de Estado en Euskal Herria” liburuan 26 atentatu horietaz gain beste 52 atentatu gehiago agertzen dira. Horren arabera, txostenean agertzen den kopurua, 26 kasu hain zuzen, suertatu ziren atentatuen heren bat besterik ez da.

1.- Txostena egiteko esleipena zuzena izan da? Zenbateko kostua izan du?

2. Ikerketa hori egiteko, zergatik kontratatu du Madrilgo Unibertsitateko talde bat eta ez hemengo NUPeko historialariak, Nafarroako historiaren eskarmentu handiagoa dutenak eta gai hori eta antzekoak lehenago jorratu dituztenak?

3. Zergatik hartu da 1975-1985 denbora tartea eta ez zabalagoa?

4. Txosten horrek zergatik ez du aipurik ere egiten hamarkada horretan Nafarroan gertatu ziren gainontzeko atentatuei buruz? Berariaz hartutako erabakia da, ala utzikeriaren ondorio?

5. Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia txostenaren kalitatearen inguruan?

6. Zein da Gobernuaren iritzia GAC-en inguruko kontakizunari eta kontraste faltari buruz publikoki egindako kexen inguruan?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge

Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Nola jarriko du abian Departamentuak arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planaren kronograman toki entitateei eta gizarte-entitateei aurtengorako aurreikusitako laguntza, eta zertan datza kronograma hori?

2.- Zein da planaren behin betiko zenbatekoa? Next Generation dokumentuan ezarritakoa ala Lurralde Kohesioko Estrategan jasotakoa?

3.- Europako funtsik ez badauka, departamentuaren asmoa proiektua birbideratzea da, ala funts berekiekin soilik ekinen dio hura garatzeari?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Kideak programari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Kideak programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zertan datza eta nola garatuko da Kideak programako mentoretza-osagaia?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, sare sozialen bitartezko gorroto-diskurtsoak monitorizatu edo kontrolatzeari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, sare sozialen bitartezko gorroto-diskurtsoak monitorizatu edo kontrolatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge

Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dizan:

1.- Legegintzaldiaren hasieratik zer ekintza egin ditu Departamentuak, sare sozialen bitartezko gorroto-diskurtsoak monitorizatu edo kontrolatzeko?

2.- Ildo horretatik, inolako elkarlanik egin al da Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuarekin? Eta Herritarreki Harremanetakoarekin?

3.- Zergatik desagertu da, Ayllu Zerbitzuaren eskumenen artetik, CitiBeats lanabes digitalaren erabileraren koordinazioa? Zer puntutan dago proiektu hori?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, emakumeak ahalduentzeko, emakumeak aisialdi-begirale gisa prestatzeko eta COVIDi buruzko sentsibilizazio-sare bat ezartzeko programei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, emakumeak ahalduentzeko, emakumeak aisialdiko begirale gisa prestatzeko eta COVIDi buruzko sentsibilizazio-sare bat ezartzeko programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer aurrekontu eta kronograma darabil departamentuak, beste departamentu batzuekiko

lankidetzan abiarazi nahi dituen hiru programak, aurtengorako iragarriak, aurrera eramateko? Hots, emakumeak ahalduzkoak, emakumeei aisialdi-begirale izateko prestakuntza emateko, eta COVIDari buruzko sentsibilizazio-sare bat ezartzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, hizkuntzak ikastekeo programei buruzkoa.*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, hizkuntzak ikastekeo programei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zer epealdi aurreikusten ditu departamentuak, aurtengorako iragarri dituen hizkuntza ikaske-tarako programak aurrera eramateko?

2.- Lizarrarako iragarritakoaz gain, beste biak non izanen diren erabakita al dago jadanik?

3.- Zer irizpideren arabera erabaki dira gaztelaniazko eta euskarazko programen proportzioak? Kasuko herrietatik eginiko eskaera baten arabera jokatu al da? Baiezkoan, kasuko eskabidea atxiki bedi.

4.- Zertan datza programa, eta nola hautatuko dira horretaz arduratuko diren pertsona edo entitateak?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak hautatutako analisi- eta azterlan-arloei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak hautatutako analisi- eta azterlan-arloei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge

Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zer irizpidetan oinarriturik ezartzen dira Departamentuak aurtengorako hautatu dituen analisi- eta azterlan-arloak? Jadanik ezarrita dagoen programazio baten parte al dira? Baiezkoan, gainerakoaren berri eman.

2.- Zer irizpideren arabera erabakitzen dira txosten edo azterlan horien prestakuntza esleitzen zaien pertsonak edo entitateak?

3.- Departamentuak xede horretarako partida agortu nahi al du 2021erako iragarritako bi azterlan horiek egitearekin? Zer kostu izanen du horietako bakoitzak?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, otsailaren 10ean, honako ebazpen hau eman zuen:

Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusiak proposamena egin du Ganberaren 2021. urterako plantilla organikoan aurreikusita dauden auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeari buruz. Proposamenak, orobat, erakundearen zerbitzu juridikoen, kontu-hartzailetza zerbitzuen eta administratzailearen aldeko txostenak ditu. Horiek guztiak ikusirik, lehendakaritza honek, Kontuen Ganberako langileen batzordeari horren berri eman eta haren iritzia entzun ondoren, indarrean dagoen araudiarekin bat,

EBAZTEN DU:

Lehenbizikoa. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia onestea. Deialdia behean jaso diren oinarrien arabera gauzatuko da.

Bigarrena. Agintzea deialdi hau argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian.

Iruñean, 2021eko otsailaren 10ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa

Hona hemen deialdi honetako oinarriak:

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzea.

– Lehendabizikoa eta hirugarrena txanda irekikoak dira.

– Bigarrena goera txandakoa da.

1.2. Honako hauetan xedatutakoarekin bat eginen da oposizioa: 1991ko martxoaren 21eko Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, eta, modu osagarrian, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, zeinaren bidez onetsi baitzen Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testu bategina, eta hura garatzeko eta betearazteko emandako ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretua, zeinaren bidez onetsi baitzen sarrera erregelamendua.

1.3. Igoera txandako lanpostua bete gabe gelditzen bada izangairik ez dagoelako edo izangaiek lortzen ez dutelako hautaprobak gainditzeko behar den gutxieneko puntuazioa, txanda irekikoei gehituko zaie.

Bestaldetik, goera txandan hutsik dauden lanpostuak baino izangai gehiagok gainditzen badute, txanda horretan lanposturik eskuratzen ez dituztenek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehia zorrotzean eta eskuratutako azken puntuazioaren arabera.

1.4. Deialdi honen bidez izendatzen diren izangaiek Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioentzat eta, bereziki, auditoretzako teknikari lanpostuarentzat ezarritako eginkizunak beteko dituzte, eta haiei dagozkien eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

Beren eginkizunak Nafarroako Kontuen Ganberaren Antolaketarako Erregelamenduaren 11. artikuluan ezarrita daude (erregelamendu hori Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2007ko otsailaren 16ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, eta 2007ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu, martxoaren 2koan). Hona hemen eginkizun horietako batzuk: a) auditoreek ezartzen dizkieten irizpideei jarraituz,

unean-unean kontrolatzen diren zentro, erakunde eta bulegoetako kontuen, finantzen egoera-orrien, barne kontrolaren eta antolamendu orokorraren, eraginkortasunaren eta efizientziaren gaineko gorabeherak aztertzea eta gainbegiratzea; b) beren eginkizunetan aritzuz lortzen dituzten emaitzei eta ondorioei buruzko informazioa ematea auditoreei; c) auditoreei laguntzea taldeari esleitutako lana planifikatzen eta antolatzen, baita egindako kontrol lanetan lortutako behin-behineko emaitzak eta ondorioak berrikusten ere; eta d) beren eskumenen barruan, nagusi duten auditoreak esleitzen dizkien laguntza eta lankidetzako lan guztiak.

1.5. Izendapena dela bide, izendatuak Kontuen Ganberako plantillako nominadun funtzionario bihurtuko dira, eta indarra duten xedapenetan ezarritako eskubide eta betebeharrak guztiak izanen dituzte.

1.6. Lanpostuak lanpostuen egungo sailkapenaren B mailan sartzen dira eta horri dagozkion lansariak izanen dituzte, eta Nafarroako Kontuen Ganberaren indarreko plantilla organikoan zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.7. Izendatzen diren pertsonak Gizarte Segurantzako araubide orokorrean sartu eta afiliatuko dira, araubide horren babesean, salbu eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan eta hori osatzen duten xedapenetan aipatzen den eskubide pasiboan eta osasun eta gizarte laguntzaren araubideko kideak badira, kasu horretan aukera izanen baitute araubide horretan segitzeko edo Gizarte Segurantzaz afiliatzeko.

1.8. Lanaldia urtero ezarriko da, eta, oro har, lanaldi jarraian eginen da, astelehenetik ostiralera, 7:30etik 15:30erako tartearan barnean, baina Kontuen Ganberako lehendakariak noiznahi aldatzen ahal du zerbitzuaren beharretara egokitzeko.

2. oinarria. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, bai, halaber, agiriak aurkezteko epearen barruan (deialdiaren 7.3 atalean adierazia) eta lanpostuaren jabetza hartu arte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa, edo langileen joan-etorri askea aplikatzen duen estaturen batekoa.

Nazionalitatea edozein dela ere, deialdian parte hartzen ahal dute espainiarren eta Europar

Batasuneko estaturen bateko herritarren ezkontideek, eta, kasuko tratatuak hala aurreikusten duenean, baita langileen joan-etorri askea aplikatzen duen estaturen bateko herritarren ezkontideek ere, zuzenbidez bereizita ez badaude.

Halaber, ezkontideen baldintza beretan, haien ondorengoek eta ezkontidearenek ere parte hartzen ahal dute, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, hortik gorakoak izanez gero, haien kontura bizi badira.

b) 16 urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina ez gaintzea.

c) Unibertsitateko diplomadun titulua, ingeniari teknikoarena edo arkitekto teknikoarena edukitzea, edo gradudun titulua edo ofizialki horren baliokidetzat jotzen den titulazioa, edo eskuratzeko baldintza guztiak betetzea eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, edo lizentzia edo ingeniaritza bateko edo arkitekturako lehenengo hiru ikasmak osorik gaindituak izatea, hori guztia bat etorritik urriaren 10eko 1272/2003 Errege Dekretuaren lehenbiziko xedapen gehigarrian xedatutakoarekin. Izan ere, errege dekretu horren bidez arautu zen zer baldintza bete behar diren Espainiako unibertsitateko edo unibertsitateaz kanpoko goi mailako irakaskuntzako tituluak unibertsitate titulu ofizialen baliokide deklaratzeko eta Espainia osoan balioa izateko.

d) Behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar diren eginkizunetan aritzeko.

e) Dagozkion eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik edo bazterturik ez egotea eta administrazio publikoren bateko zerbitzutik bereizita ez izatea.

2.2. Igoera txandako izangaiek, aurreko atalean aipatu diren baldintzez gain, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, deialdi honetako 7.3. oinarrian agiriak aurkezteko epeak iraun bitartean eta lanpostuaren jabetza hartu arte, honako hauek bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izatea, eta jatorrizko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

b) Deialdiko lanpostu hutsen maila berekoa edo beheragokoa izatea.

c) Administrazio publikoetan bost urteko antzinasun onartua frogatzea.

2.3. Aurreko baldintzak deialdiaren 3. oinarrian ezarritako epean eta eran frogatu beharko dira. Baldintza horiek eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete behar direla ulertuko da. Era berean, izangaiek hautapen prozesuak iraun

bitartean bete beharko dituzte 2. oinarri honen 1. atalean aipatzen diren baldintza guztiak. Hautapen prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. oinarria. Eskaerak aurkeztea eta tasak ordaintzea.

3.1. Tasak.

3.1.1. Azterketa eskubideengatik eta espedientea formalizatzegatik 41,60 euroko tasa ordaindu beharko da. Honako hauek tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

a) %33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten pertsonak.

b) Deialdia argitaratzen den egunerako, lan eskatzaile gisa hilabete bat edo gehiago inskribaturik daramaten pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribaturik egon diren bitartean eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikaturiko kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako diru-sarrerarik ez izatea, hilean zenbatuta.

Aurreko a) paragrafoan aurreikusitako salbuespena frogatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– IMSERSOk edo autonomia erkidegoan eskumena duen organoak emandako ziurtagiria.

– Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, prestazio bat jasotzeko eskubidea onartzen diona hauetakoren bat edukitzeagatik: ezintasun iraunkor osoa, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia.

Aurreko b) paragrafoan aurreikusitako salbuespena frogatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– Lan eskatzailea dela frogatzeko, behar den enplegu bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko da. Bertan, lan eskatzaile gisa inskribatu zeneko data agertuko da, eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin handik eskainitako inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo birmoldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

– Interesdunak erantzukizunpeko adierazpen baten bidez frogatuko du ez duela hilero lanbide arteko gutxieneko soldatatik gorako diru-sarrerarik. Kontuen Ganberak gero egiaztatuko du hori hala dela.

3.1.2. Tasa hori Kontuen Ganberak Caixabanken duen kontu honetan ordainduko da: ES59 2100 9161 4722 0002 7424. Ordainagirian adieraziko da auditoretzako teknikarien oposizioa azterketa eskubideei dagokiela, eta transferentziaren edo diru-sarreraren frogagiria aurkeztu beharko da eskabidearekin batera.

3.1.3. Azterketa eskubideen tasa ordaintzen ez bada, izangaia baztertu egingen da.

Azterketa eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskaera behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

3.2. Eskaerak.

3.2.1. Oposizioan parte hartu nahi dutenek behar den eskabidea aurkeztu beharko dute, eredu ofizialarekin bat (deialdiaren I. eranskina), non datu hauek jarriko baitituzte: izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa, baita zein txandatan parte hartu nahi duten, hots, txanda irekian edo igoera txandan.

3.2.2. Eskabidean deialdi honen 2. oinarrian aipatzen diren baldintza guztiak betetzen direla espresuki agerrarazi beharko da, eta horiek frogatu beharko dira deialdiaren 7. oinarrian ezarrita daogoen moduan.

3.2.3. Eskabideak Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzenduko zaizkio eta Nafarroako Kontuen Ganberaren erregistro orokorrean aurkeztuko dira (Iruñeko Ansoleaga kalea 10), egun eta ordu baliiodunetan (goizeko 9:00etatik 14:00etara bitarte, astelehenetik ostiralera), hogei-ta hamar egun naturaleko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulegotan, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako bideetakoren bat erabiliz.

Eskabidea posta bulego batean aurkezten bada, gutun-azal ireki batean aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar diezazkioten, ziurtatu eta Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrera igorri baino lehen.

Eskabideak Kontuen Ganberaren Erregistro Elektronikoan ere aurkezten ahalko dira haren egoitza elektronikoaren bidez.

3.2.4. Desgaitasun aitortua dutenek, ariketak egin ahal izateko denbora edo baliabideetan egokitzapenik behar badute, zilegi izanen dute eskatzea; horretarako, eskabidean adierazi behar-

ko dute, eta aparteko orri batean azaldu beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten. Horrekin batera, legeen arabera desgaitasunen bat dutela frogatzen duen agiria ere aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

3.2.5. Eskabidearen eredia interesdunen eskura egonen da Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorrean, bai eta erakundearen web-orrian ere.

4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da. Zerrendan izangai onartuen eta baztertuen izenabizenak agertuko dira, baita zein txandatan (-txanda irekia ala igoera txanda) aurkezten diren ere. Izangai bazterturik ez badago, behin betiko zerrenda argitaratzen ahalko da zuzenean.

4.2. Interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezten ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka, eta, akatsik izan bada, haiek zuzentzen ahalko dituzte, zerrenda Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epearen barruan.

4.3. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Ganberako iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da.

5. oinarria. Kalifikazio epaimahaiaren osaketa, eraketa eta jarduna.

5.1. Hona hemen oposizioaren epaimahaiko kideak:

Epaimahaiburua:

– Karen Moreno Orduña, Nafarroako Kontuen Ganberako auditorea.

Ordezkoa:

José Luis Ezquerro Royo, Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusia.

Epaimahaikideak:

– Isabel Linares Muñagorri, Aragoiko Kontuen Ganberako auditoretzako zuzendaria.

Ordezkoa:

Ignacio Barquero Solanes, Aragoiko Kontuen Ganberako auditoretzako zuzendaria.

– Jorge Balduz Gil, Nafarroako Arartekoaren administrazio kudeaketako teknikaria.

Ordezkoa:

Laura Vidan Astiz, Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzearen eta Gai Ekonomikoen Zerbitzuko burua.

– Nuria Sarasa Amatriain, Kontuen Ganberako auditoretzako teknikaria, erakundeko langileen batzordeak izendatua.

Ordezkoa:

Amaia San Martín Erice, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoretzako teknikaria, erakundeko langileen batzordeak izendatua.

Idazkaria:

– José Contreras López, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria.

Ordezkoa:

Gemma Angélica Sánchez Lerma, Nafarroako Kontuen Ganberako legelaria.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi aitzin osatu beharko da. Ez du eratzerik izanen, ez eta aritzerik ere, bertan mahaikide gehienak ez badira.

5.3. Epaimahaiaren eraketak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoek bertan egon beharko dute.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaia gehiengoz ebaztiko ditu.

5.5. Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude. Halaber, deialdian parte hartzen dutenek mahaikideak errekusa ditzakete, arrazoi horietako bat gertatzen denean.

5.6. Epaimahaia aholkulari adituen laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan laguntzeko. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko, eta epaimahaiari haietan baizik ez diote lagunduko.

6. oinarria. Oposizioa nola eginen den.

6.1. Oposizioaldia 2021eko azarotik aurrera hasiko da. 2021eko urriaren 15a baino lehen argitaratuko dira tokia, eguna eta ordua Kontuen Ganberako iragarki-taulan eta web-orrian.

6.2. Oposizioaldiak hiru ariketa izanen ditu; horietako bi praktikoak izanen dira eta bestea, teorikoa. Proba horien edukia eta puntuazioa honako hauek izanen dira:

a) Lehenbiziko ariketa, praktikoa; honako gai hauei buruzko kasu bat edo batzuk ebaztea lau orduan:

– Kontabilitate publikoa eta/edo pribatua.

Ariketa egiteko, oposiziotegileek kontuen taula izaten ahalko dute. Kontuen Ganberak emanen du hori, eta erreferentzia gisa honako araudi hau hartuko da kontuan: 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, zeinaren bidez onesten baita Kontabilitate Plan Orokorra; EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, zeinaren bidez onesten baita Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra; 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, zeinaren bidez garatzen baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan; 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako toki entitateen aurrekontu egitura; eta 272/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Instrukzio Orokorra; eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, zeinaren bidez onesten baita Kontabilitatearen Instrukzio Erraztua Nafarroako Toki Administrazioarentzat.

– Matematika finantzario eta/edo estatistiko oinarritzakoa.

Lehenbizikoari dagokionez, honako eragiketa hauek izan ditzake: kapitalizazio eragiketa simpleak eta konposatuak; errenta, mailegu eta jesapen eragiketak; eta etekinaren barne-tasa, interes-tasa efektiboa eta balio eguneratu garbia kalkulatzeko eragiketak.

Lehendabiziko ariketan 35 puntu lortzen ahalko dira gehienez, eta gutxienez 17,50 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

b) Bigarren ariketa, praktikoa; lau orduan, epaimahaiak jarriko dituen auditorietza publiko edo/eta pribatuko kasu bat edo batzuk ebatzi beharko dira, honako hauekin bat: Goi Mailako Fiskalizazio Entitateen Nazioarteko Arauak (ISSAI ES) eta Auditoretzako Arau Teknikoak (NIA-ES). Ariketan 35 puntu lortzen ahalko dira gehienez, eta gutxienez 17,50 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

c) Hirugarren ariketa, teorikoa: gehienez ere 5 ordu iraunen du, eta 30 puntuko balorazio globala izanen du. Bi zatitan garatuko da, honela:

1. Deialdiaren II. eranskinean adierazitako gai zerrendatik zozketa bidez ateratako gai bat idatziz garatu beharko da. 15 puntu lortzen ahalko dira, gehienez ere, eta gutxienez 7,5 puntu atera beharko dira proba gainditzeko.

2. Deialdiaren II. eranskineko gai zerrendari lotutako 10 galdera planteatuko ditu epaimahaiak eta idatziz erantzun beharko zaie. Zati horretan 15 puntu lortzen ahal dira gehienez, hau da, 1,5 puntu galdera bakoitzeko. Proba gainditzeko, gutxienez, gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da, hau da, 7,5 puntu, eta 10 galderetatik 8etan, gutxienez, puntuazioa eskuratu.

6.3. Hiru ariketetan, plika itxien sistema erabiliko da zuzentzeko. Horretarako, izangaiek, ariketa bakoitza bukatutakoan, idatzitako orriak gutun-azal batean sartuko dituzte, izenik jarri gabe. Izendaturak bestearekin batera aurkeztuko den gutun-azal txikiago batean idatziko dituzte. Bi gutun-azalaren epaimahaiak zenbaki bera jarriko du. Ariketak zuzendu ondoren eta kasuan kasuko plika zenbakiari puntuak eman ondoren, gutun-azal txikia jendaurrean irekiko da, ariketa bakoitzaren egilea zehazteko.

6.4. Kalifikazioaren ondoren epaimahaiak ariketa bakoitzaren emaitza Kontuen Ganberako iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko du, eta hurrengo probaren lekua, eguna eta ordua adieraziko ditu, 48 ordu lehenago gutxienez.

Ariketa bakoitzaren puntuazioa hurrengo probetan izangaiek lortzen dutenari gehituko zaio, eta, horrela, oposizioaldiaren guttizko puntuazioa aterako da.

6.5. Probarako dei bakarra egingen da. Hartara nortasun agiri nazionala, pasaporte, gidabaime-na edo epaimahaiak askiesten duen beste nortasun agiri bat aldean dutela agertu beharko dute izangaiek. Azterketan azaltzen ez direnak edo haien nortasuna frogatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.6. Oposizioaldiko probak egiteko orduan, minusbaliotasunak izanik halaxe eskatzen dutenek denbora eta baliabide aldetik zilegi diren egokitzapenak izanen dituzte, eskabidean azaltzen dutenaren arabera.

7. oinarria. Probak gainditu dituztenen zerrenda, izendatzeko proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Oposizioaldia bukatu ondoren, epaimahaiak gainditu duten izangaiei zerrenda (txanden arabera eta txanda bakoitzean ateratako puntuazioaren arabera) argitaratuko du Nafarroako Kontuen Ganberako iragarki-taulan eta web-orrian.

7.2. Epaimahaiak puntuaziorik altuenak lortzen dituzten izangaiak izendatzeko proposamena igorriko dio Kontuen Ganberako lehendakariari, oposizioko aktekin eta gainerako agiriekin batera. Proposamen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.3. Izendatzeko proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturalen barrenean, proposatutako izangaiek honako agiriok aurkeztu beharko dituzte Nafarroako Kontuen Ganberan:

7.3.1. Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioak ez diren izangaiek:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpultsatua, edo izangaia nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Deialdiaren 2.c) oinarrian eskatzen den titularen fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

c) Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak emandako txostena, frogatzeko ez duela gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik karguan aritzea eragotziko liokeenik.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

d) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izanaren zinpeko aitortpena.

e) Zinpeko aitortpena edo promesa, adierazten duena Nafarroako foru araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeei men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Nafarroako Kontuen Ganberakoa ez den Nafarroako beste administrazio publikoren bateko funtzionarioek edo langile finkoek, gainera, aurreko administrazioaren espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzen dituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, hots, sarrerari, antzinasunari, mailari, egoera administrazioari eta abarrei buruzkoa.

7.3.2. Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioak diren izangaiek:

a) Deialdiaren 2.c) oinarrian eskatzen den titularen fotokopia konpultsatua, edo hura eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena.

Minusbaliotasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

7.4. Aipatu epearen barrenean, eta aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, arestiko agiriak aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, beren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

7.5. Aurreko atalean azaldutakoa gertatuz gero, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak oposizioa gainditzen dutenen zerrendan (7.1 atalean aipatzen den hartan) ondotik heldu den pertsonarekin beteko du utzitako hutsunea, eta harekin ere aurreko ataletan adierazi bezala jokatuko da.

8. oinarria. Izendapena eta karguaz jabetzea.

8.1. Goiko 7.3 puntuan aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak, ebazpen baten bidez, proposaturiko izangaiak izendatuko ditu. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.2. Izendatzen diren pertsonak hilabeteko epean jabetu beharko dute lanpostuaz, izendapena jakinarazten zaienetik hasita.

8.3. Aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, izendatutako pertsonaren batek deialdi honetako 7.3 oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezten ez baditu edo aipaturiko hilabeteko epean jabetza hartzen ez badu, oposizioko jarduketetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta, halakoetan, aurreko oinarrian adierazitako zerrendan hurrengo dagoen pertsonarekin beteko da lanpostua.

9. oinarria. Aurkeztutako agiriak.

9.1. Izangaiek aurkezten dituzten agiriak berreskuratzen ahalko dituzte, berariaz eskatuz gero, betiere erreklamazio edo errekurtsorik jartzen ez bada. Agiriak berreskuratzeke eskaera hiru hilabeteko epean aurkezten ahalko da. Epe hori behin betiko izendapenaren ebazpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hasiko da.

9.2. Aurreko atalean ezarritako epea bukatzen bada agiriak hartzeko eskaerarik egin gabe, izangaiek agiriak berreskuratzeari uko egin diotela ulertuko da, eta, beraz, horretarako eskubidea galduko dute eta agiriak suntsitu egingen dira.

9.3. Erreklamazio edo errekurtsoren bat aurkezten baldin bada, aurkeztutako agiriak gorde egingen dira, ikuskatu eta aztertzeko. Halakoetan, agiriak berreskuratzen ahalko dira erreklamazioaren edo errekurtsoren tramitazioak horretarako aukera ematen duenean.

10. oinarria. Errekurtsiak.

Honako errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke deialdiaren, haren oinarrien, izendatzeko erabakien eta Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak deialdia dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka:

a) Aukerako berraztertze errekurtsioa, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Deialdi hau aurrera eramateko kalifikazio epai-mahaiak hartzen dituen gainerako egintzen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahalko da, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariari zuzendua, egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

I ERANSKINA
ESKABIDE EREDUA

Izen-deiturak: , adina: ,
NANA: , helbidea (herria): , kalea:
..... , zenbakia: , solairua: , posta kodea: ,
helbide elektronikoa: ; telefonoa: ,
behar den begirunearekin

ADIERAZTEN DUT:

1.- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak 2021eko otsailaren 10ean emandako ebazpenaren berri izan dut, zeinaren bidez deialdi bat onetsi baita auditoretzako laguntzaileen hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko, eta deialdi horretan parte hartu nahi dut.

2.- Eskaerak aurkezteko epearen azken egunean deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharrak guztiak betetzen ditut, eta hitzematzen dut, izendatua izanez gero, aurreikusitako epearen barnean deialdiaren hirugarren oinarrian adierazitako dokumentuak aurkeztuko ditudala eta auditoretzako teknikari lanpostuaz jabetuko naizela 30 eguneko epean, behin-behineko izendapena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

3.- Txanda irekian parte hartu nahi dut

Txanda murriztuan parte hartu nahi dut

4.- a) Ez daukat inolako minusbaliotasunik

b) Minusbaliotasuna dut eta, horrenbestez, azaltzen den egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik (beste orri batean, azalduko dira minusbaliotasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak).

Adierazitakoaren ondorioz,

ESKATZEN DUT:

Onartua izatea eskabide honetan adierazitako deialdian, eta, horretarako, eskatzen den dokumentazioa aurkezten dut.

Data eta sinadura

II. ERANSKINA

Deialdiko programa

1. gaia. Ekonomia Publikoaren justifikazioa. Oreka orokorraren eredu teorikoa. Ekonomiako esku-hartze publikoaren oinarriak. Estatuaren eginkizun fiskalak: esleitzea, banatzea eta egonkortzea. Ogasun publikoaren gaineko teoria positiboa eta arau-emailea. Ogasun publikoaren egungo gaiak.

2. gaia. Ongizatearen ekonomiaren oinarriak. Efizientzia ekonomikoa kontsumoan, ekoizpenean eta efizientzia orokorrean. Esku-hartze publikoa eraginkortasuna lortzeko: merkatuaren akatsak. Ondasun publikoak. Esternalitateak. Ondasun pribatuen hornidura publikoa. Esku-hartze publikoa ekitatea lortzeko.

3. gaia. Osasuna lehentasunezko ondasun gisa. Hezkuntza lehentasunezko ondasun gisa. Mendekotasunari erantzutea.

4. gaia. Enpresa publikoa. Kontzeptua. Enpresa publikoaren helburuak. Haren kudeaketaren oinarriko ezaugarriak. Enpresa publikoaren kontrol sistema. Enpresa publikoaren finantzaketa. Kanpoko finantzaketaren iturriak. Egitura finantzarioa.

5. gaia. Aurrekontu zuzenbidea: kontzeptua, edukia eta egungo erregulazioa. Estatuko Aurrekontu Orokorrek: prestaketa, eztabaida eta onepena. Aurrekontuen egitura eta aldaketak.

6. gaia. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea. Aplikazio eremua eta Ogasun Publikoaren araubidea. Nafarroako aurrekontu orokorrak.

7. gaia. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea. Finantza eragiketak. Diruzaintza. Kontabilitatea. Erantzukizunak.

8. gaia. Barneko kontrola Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean eta 31/2010 Foru Dekretuan.

9. gaia. Zerga zuzenbidea: kontzeptua eta edukia. Iturriak. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra: printzipio orokorrak eta tributudunen eskubide orokorrak. Tributuek eta horien motak. Tributuen kudeaketa Nafarroan: Tributuek kudeatzeko prozedura eta tributuen bilketa. Tributuen gaineko ikuskapena.

10. gaia. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna arautzen dituen esparru juridikoa. Aplikazio eremua eta printzipio orokorrak. Prebentzio, zuzenketa eta zigor neurriak. Aurrekontuen kudeaketa. Autonomia erkidegoetan eta toki entitateetan aplikatzea.

11. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa (1): Atariko titulua. Oinarriko eskubideak eta betebeharrak. Koroa. Gorte Nagusiak. Gobernua eta Administrazioa. Gobernuaren eta Gorte Nagusien arteko harremanak.

12. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioa (2): Botere judiziala. Ekonomia eta Ogasuna. Estatuaren antolakuntza lurraldeen arabera. Konstituzio Auzitegia. Konstituzioaren erreforma.

13. gaia. Administrazio zuzenbidearen iturriak. Konstituzioa. Legea. Lege maila duten Gobernuaren xedapenak: lege dekretuak eta legegintzako dekretuak. Erregelamendua: kontzeptua, ezaugarriak eta motak. Erregelamenduen mugak: formalak eta funtsari dagozkionak. Legez kontrako erregelamenduak.

14. gaia. Sektorre publiko administratiboa eta sektorre instituzionala. Erakunde publikoak: tipologia eta oinarriko araubide juridikoa. Zuzenbide pribatuko entitateak: tipologia eta oinarriko araubide juridikoa.

15. gaia. Administrazio prozedura erkidea: kontzeptua eta printzipioak. Alderdiak prozeduran. Hasiera, antolamendua eta instrukzioa. Prozeduraren bukaera: moduak. Administrazio elektronikoa: betebeharrak eta tresnak. Egoitza elektronikoa eta web ataria. Dokumentuen kudeaketa. Prozedura elektronikoa.

16. gaia. Administrazio egintzen eraginkortasuna. Administrazio egintzen jakinarazpena eta argitalpena. Administrazio egintzen ondorioen eten-dura. Nahitaezko betearazpena eta premiamendu bidearen aipamen berezia. Administrazioaren isiltasuna.

17. gaia. Administrazio egintza. Elementuak. Forma. Motak. Administrazio egintzen baliorik eza: erabateko deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Administrazio egintza irregularrak. Baliozkotzea, gordetzea eta bihurtzea. Administrazio egintzak ofizioz berraztertzea eta errebokatzea.

18. gaia—Administrazio errekurtsioak: kontzeptua eta motak. Administrazio errekurtsioak tramitzeko eta ebazteko prozedura. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa. Hedadura eta mugak. Prozeduraren alderdiak. Epaia. Errekurtsioak.

19. gaia. Europa eraikitze prozesua. Europar Batasuna. Europar Batasuneko erakunde-sistema: Kontseilu Europarra, Europar Batasuneko Kontseilua, Europako Batzordea, Europako Parlamentua, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, Europako Kontuen Auzitegia eta Europako Banku Zentrala.

20. gaia. Europako Erkidegoko zuzenbidea: kontzeptua, ezaugarriak. Europako Erkidegoko zuzenbidearen iturriak. Jatorrizko zuzenbidea. Zuzenbide eratorria: erregelamendua, zuzentzarauak eta erabakiak. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratua. Europako Erkidegoko zuzenbidearen eragina Foru Komunitatean.

21. gaia. Unibertsitateak. Antolaketa, funtzionamenduaren eta kudeaketaren arloetan aplikatu beharreko oinarriko araubide juridikoa. Araubide ekonomikoa eta aurrekontuena. Unibertsitateen zerbitzuko langileak. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aipamen berezia.

22. gaia. Datu pertsonalak babestea. Datuak Babesteko Europako Erregelamendua: arauen ondorioak eta printzipio aplikagarriak. Aplikazio eremua. Datuen babesaren arloko oinarriko alderdiak. Pertsonen eskubideak.

23. gaia. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea. Aplikazio eremua. Helburuak eta printzipio orokorrak. Gardentasuna jardura publikoan. Publizitate aktiboa. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Nafarroako Gardentasunaren Kontseilua: eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendua.

24. gaia. 1839ko urriaren 25eko Legea. 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itundua. 1979ko urtarrilaren 26ko Errege Dekretu Itundua.

25. gaia. Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa. 1990eko Hitzarmenaren eta ondoren egindako eguneraketa eta aldaketa garrantzitsuenen aipamen berezia.

26. gaia. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa: oinarriko printzipioak. Nafarroako foru erakundeak. Nafarroaren ahalmen eta eskumenak. Legearen aldaketa.

27. gaia. Foru Komunitatearen sektore publikoa. Osatzen duten entitaterik garrantzitsuenen deskribapena, tipologia eta definizioa. Nafarroako toki sektore publikoa: osatzen duten entitaterik garrantzitsuenen deskribapena, tipologia eta definizioa.

28. gaia. Nafarroako Parlamentua edo Gortea: haren eginkizunak. Osaera, antolaketa eta funtzionamendua. Kontuen Ganberarekiko harremanak. Langileen estatutua.

29. gaia. Nafarroako Gobernuari eta haren Lehendakariari buruzko Foru Legea. Nafarroako Gobernua. Osaera, izendapena, eraketa eta

kargu-uztea. Eskudantziak eta eskumenak. Funtzionamendua. Erantzukizun politikoa, Parlamentuaren kontrola eta Nafarroako Parlamentua desegitea. Nafarroako Gobernuko lehendakaria. Hautatzea, izendatzea, ordeztzea, kargu-uztea eta aldatzea. Eskudantziak. Kontseilariak. Nafarroako Gobernuaren legegintzarako ekimena eta arauak emateko ahalmena.

30. gaia. 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa: III. titulua. Foru Administrazio Publikoaren eta Foru-sektore publiko instituzionalaren antolaketa. IV. titulua. Foru Administrazio Publikoaren funtzionamendu elektronikoa.

31. gaia. Foru Komunitateko Arartekoa eta Nafarroako Kontseilua. Bi erakunde horien eginkizunak, antolaketa eta funtzionamendua.

32. gaia. Nafarroako ondarea. Kontzeptua eta sailkapena. Ondarea kudeatzeko printzipioak. Eskuratzea, besterentzea eta lagatzea. Ondarea babestu eta defendatzea. Afektazioa, aldaketa demaniala eta atxikipena. Jabari publikoa. Jabari pribatua. Enpresen ondare publikoa.

33. gaia. Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (I): aplikazio eremua eta arau orokorrak. Botere adjudikaziodunak. Kontratistak. Kontratuaren tipologia eta araubide juridikoa. Kontratu kudeaketarako printzipioak eta arauak. Publizitate arauak eta adjudikazio prozedurak.

34. gaia. Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (II): Kontratuak betearaztea. Erreklamazioak eta lizitazioen kontrolerako beste neurri batzuk. Administrazio Publikoek egiten dituzten kontratuaren arau berariazkoak.

35. gaia. Kontratu Publikoei buruzko Foru Legea (III): Administrazio Publikoen kontratuaren araubide juridikoa. Obra kontratua. Herri-lanak emateko kontratua. Zerbitzuak emateko kontratua. Hornidura kontratua. Zerbitzu kontratua.

36. gaia. Dirulaguntzei buruzko Foru Legea. Aplikazio eremua. Dirulaguntza publikoei buruzko xedapen orokorrak. Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak. Dirulaguntzen itzulketa. Dirulaguntzen jarraipena eta kontrola. Dirulaguntza publikoak arautzen dituen estatuko legearen aipamena eta haren aplikazioa Nafarroan.

37. gaia. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea: Foru legearen xedea eta helburuak. Hirigintza-hitzarmenak. Udal plan orokorra. Garapenerako planeamendua. Lurzoruaren sailkapena. Hiri-lurzoruaren eta lurzoru

urbanizagarriaren araubidea. Planeamenduaren betearazpena. Esku hartzeko instrumentuak.

38. gaia. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua (I): aplikazio eremua, bazter gelditzen direnak eta langile motak; funtzionarioen hautapena, funtzionario izaera eskuratzea eta galtzea; mailak eta graduak, lanbide karrera, plantilla organikoak; administrazio egoerak; lanpostuak betetzea.

39. gaia. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua (II): eskubide eta betebeharrak, ordainsariak; diziplina-araubidea; langile kontratatuak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak. Nafarroako Foru Komunitateko irakasleak eta osasun arloko langileak: haien araubidearen oinarritzko alderdiak.

40. gaia. Nafarroako Toki Administrazioa (1). Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak. Nafarroako toki erakundeen antolaketa eta administrazioa. Funtzionamendua. Nafarroako toki entitateen jarduerak, zerbitzuak eta obrak.

41. gaia. Nafarroako Toki Administrazioa (2). Toki entitateen ondasunak. Nafarroako toki entitateen zerbitzuko langileak. Toki ogasunak. Eskualdeak.

42. gaia. Toki Ogasunei buruzko Foru Legea (1). Nafarroako toki entitateen baliabideak: baliabide motak, tributuz besteko baliabideak, tributuoak, kreditu eragiketak. Tokiko diru-bilketa. Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzea. Udal zergak.

43. gaia. Toki Ogasunei buruzko Foru Legea (2). Aurrekontua eta gastu publikoa: aurrekontu orokorrak, exekuzioa eta likidazioa, diruzaintza, kontabilitatea, kontrola eta fiskalizazioa.

44. gaia. Espainiako zuzenbidearen iturburuak. Nafarroako zuzenbide zibilaren iturriak. Nafarroako foru zuzenbide zibilaren edo Foru Berriaren konpilazioa. Haren edukiari buruzko alderdi orokorrak.

45. gaia. Eskubide errealak: kontzeptua eta motak. Eskubide errealen eta kreditu-eskubideen arteko diferentziak. Jabetza. Jabetza eskuratu eta galtzeko moduak. Jabetza Erregistroa. Hipotekei buruzko printzipioak.

46. gaia. Merkataritza-sozietatea: kontzeptua eta motak. Merkataritza-sozietatearen kontratua: oinarritzko elementuak. Eraketaren formalitateak. Erregistroko eskritura eta inskripzioa. Sozietate multzoak. Estatutueto aldaketa nagusiak. Kapital-sozietateen funtsezko ezaugarriak.

47. gaia. Sozietate anonimoa. Kontzeptua eta ezaugarriak. Akzioak eta obligazioak. Sozietate anonimoaren organoak. Merkataritza-sozietatea desagitea. Merkataritza-sozietateen eraldaketa, bat-egitea eta bereizketa.

48. gaia. Sozietateen urteko kontuak. Motak, urteko kontuak egitea, egiaztatzea, onestea eta gordetzea. Merkataritza Erregistroa: inskripzioaren kontzeptua, edukia eta esanahia.

49. gaia. Konkurtsoa: aurrekontu objektiboa eta subjektiboa. Konkurtsoa deklaratzeko autoa eta haren eraginak. Masa aktiboa eta pasiboa zehaztea. Saillapena eta ordainketa. Hitzarmena. Bukaera eta kalifikazioa.

50. gaia. Merkataritzako obligazioak: ezaugarri orokorrak. Merkataritza kontratuak: kontzeptua eta motak. Merkataritzako salerosketa. Garraio kontratua. Aseguru kontratua.

51. gaia. Kontuen Auditoretzari buruzko Legea eta haren erregelamendua. Kontabilitaterako eta Kontuen Auditoretzarako Institutua: antolaketa eta eginkizunak.

52. gaia. Auditoretza eta haren motak. Sektore publikoaren aipamen berezia.

53. gaia. Auditoretzako printzipioak eta arauak. Sektore Publikoaren eta ISSAI-ES 100, 200, 300 eta 400 arauen aipamen berezia.

54. gaia. Auditoretza planifikatzea: fiskalizazio GPF-OCEX 1300 gida praktikoa.

55. gaia. Arriskuen azterketan oinarritutako auditoretza-ikuspuntua. GPF OCEX 1315 gida.

56. gaia. Laginketa auditoretzan: GPF OCEX 1530 gida. Auditoriaren ebidentzia: GPF OCEX 1500 gida.

57. gaia. Barneko kontrola: GPF OCEX 1316 gida.

58. gaia. Inportantzia erlatiboa finantza-auditoretzetan eta betetze-mailaren auditoretzetan. GPF OCEX 1320 eta 4320 gidak.

59. gaia. Auditoretzako txostenak. Ohar orokorrak eta edukia. Iritzi motak. GPF OCEX 1730 eta 4001 gidak.

60. gaia. Aurrekontuko diru-sarrera eta gastuetako kapituluaren auditoretza.

61. gaia. Balantzearen aktiboa eta pasiboa osatzen dituzten elementuen auditoretza.

62. gaia. Auditoretza ingurune informatikoetan. GPF-OCEX 5300, 5330, 5340 eta 5370 gidak.

63. gaia. Zibersegurtasuna, informazioaren segurtasuna eta kanpoko auditoretza. GPF-OCEX 5311, 5312 eta 5313 gidak.

64. gaia. Goi mailako entitate fiskalizatzaileak edo kontuen auzitegiak. Ideia orokorrak. Kontrole-rako eremua. Parlamentuekiko eta gobernuekiko harremanak.

65. gaia. Kanpoko kontrola Espainian. Espainiako Kontuen Auzitegia bere lege organikoan eta bere funtzionamendu legean: antolaketa eta eginkizunak. Europar Batasuneko Kontuen Auzitegia. Autonomia erkidegoetako kanpo kontrolerako organoak.

66. gaia. Kontabilitate arloko erantzukizuna: izaera eta helburua. Kontabilitate arloko erantzukizun kasuak eta hori eskatzeko prozedurak. Kontabilitateari buruzko jurisdikzioaren organoak.

67. gaia. Nafarroako Kontuen Ganbera: bilakaera historikoa eta egungo erregulazioa. Izaera, esanahia eta eginkizunak. Harremanak Nafarroako Parlamentuarekin eta Kontuen Auzitegiarekin.

68. gaia. Nafarroako Kontuen Ganbera: antolaketa eta funtzionamendua. Antolaketari eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioari buruzko erregelamenduak.